

# 10 Minutu Plataforma

## Diagnostiko arinaren gaitza

Sendagileek hamar minutu behar dituzte. Horixe da euren gaixoei merezitako arreta eskaini eta behar bezala artatzeko eskatzen duten gutxiengo denbora. 10 Minutu Plataforma sortu dute horren alde lan egiteko.

IURE ALTZIBAR

**LEHEN MAILAKO ARRETAKO** sendagileek behar baino denbora gutxiago dute gaixoei eskaintzeko. Guztiok jasan izan ditugu jende ilara luzeak medikuarengana joandakoan, batez ere epidemia garaietan. Eta denak behar bezala artatzeko bestelako zereginak alde batera utzi behar ditu sendagileak. Egoera horri aurre egiteko sortu zuten 10 Minutu Plataforma Espainiako Estatuan.

EAEn ere sortzeko bidean da ekimena eta Rafa Gracia da bultzatzaileetako bat. Oraindik errotu gabeko taldea izanagatik ere hainbat ekintza burutu ditu dagoeneko. Graciak aitortu

digunaren arabera, lehen mailako arretako profesional askok ez du uste egungo osasun arloa aldatzeko aukerarik dagoenik, eta hori izango litzateke hemengo sendotu gabeko taldea izatearen arrazoietako bat.

Gaixoak modu egokian behatu ahal izateko denbora eskatzen dute. Izan ere, Munduko Osasun Elkarteak dioenez kontsultak hamar minutukoa izan beharko luke gutxienez. Duela gutxi Eroskiren *Consumer* aldizkariak eginiko ikerketak, ordea, eguneroko egoera bestelakoa dela erakusten du, epe hori ez dela beti errespetatzen, alegia. Gipuzkoa eta Nafarroako osasun



INIGO AZKONA

etxeak dira baldintza hori hobekien betetzen dutenak –15 eta 11 minutu eskaintzen zaizkie gaixoei, hurrenez hurren– eta Araba eta Bizkaikoak jaramon gutxien egiten dietenak –9 eta 6 minutuko arreta jasotzen dute gaixoei–. Europako gainerako osagileekin alderatuta, gaixo bakoitzari denbora gutxien eskaintzen dietenak dira gureak.

Joera hori datuetan baino argiago ikusten da kontsultan, eta medikuek eriak aztertzen hastean nabaritzen dute. Hala ere, gaixoak ez dira kezu egoerarekin. Graciaren arabera gaitasuna bere testuinguruan ulertu behar da eta horretarako beharrezkoa da bi aldeen arteko harremana sendotzea. Beraz, denbora ezinbestekoa da.

Kontsultan beste arazo bat sortzen da: burokrasia. Asko dira bete beharreko datu eta txostenak eta horrek ere astia kentzen du. Esaldi argigarria du Graciak egoera azaltzeko: “Hainbeste izapideren ondorioz, batzuetan gehiago begiratzen diogu ordenagailuaren pantailari gaixoari baino”. Dioenez, OSABIDEk –gaixoen historial klinikoak zentralizatzen dituen Osakidetza zerbitzu informatikoak– ez du ia batere lagundu, eta arindu beharrean mantsotu egin du kontsulta.

Gaixo kopurua da arazoa. Urteek aurrera egin ahala eta gizartearen eraldaketaren ondorioz, ugaritzen joan dira eta Europan egunero gaixo gehien jasotzen dituzten medikuak ditugu hemen. Herritarren zahartzeak, inmigrazioak, teknologia berriak, patologia kronikoen antzemate eta jarraipen handiagoak eta antzekoek laguntza eskaria %25a baino gehiago igoarazi dute. Orain lehen mailako arretako sendagileak dira sorospena behar dutenak, baina langile kopuruak bere horretan jarraitzen du.

RAFA GRACIA



Hainbat osasun etxetan egin dituzte geldialdiak Plataformakoek. Euren izenak zehazten duen bezala, hamar minutukoak izaten dira.

“Hainbeste izapideren ondorioz, batzuetan gehiago begiratzen diogu ordenagailuaren pantailari gaixoari baino”

RAFA GRACIA, MEDIKUA

## Denboraz harago

Beste gabezia batzuk ere jasaten ditu osasun arloak. Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundearen arabera, Espainia da Europako herrialdeen artean Osasun Publikorako aurrekontu gutxien duen herrialdea. Eta horrek Hego Euskal Herrian ere eragiten du. Gainera, azken urteotan lehen mailako arretari eskaintako aurrekontua jaitsi egin da. Beste sendagile askok bezala, 10 Minutu Plataformak

profesionalen lan baldintzak hobetzea eskatzen du, horrela beraien benetako funtzioak bete ahal izango baitituzte: sorospena, irakaskuntza, ikerkuntza eta heziketa, besteak beste. Gaur egun, ezinezkoa da lan horiek garatzea, gaixoei behar adina arreta eskaintzeko zeregin horietatik hartzen baitute denbora.

Egoera zaila bada ere, Plataformak uko egin dio grebari, euren ekintzak gaixoentzat izanik ez dutelako egoki ikusten protestekin laguntza medikoa geldiaraztea. Beraz, jada sinboliko bihurtu diren hamar minutuko geldialdiak baino ez dituzte egiten noizean behin.

Hala ere, elkarte profesionalak elkarrekin biltzeari eskaini diete indar gehien, sindikatuak eta medikuen kolegioak batzeari. Sinadurak biltzen ere aritu dira gaixo eta medikuen artean. Araban, esaterako, lehen mailako arretako medikuen %80ak baino gehiagok sinatu ditu 10 Minutu Plataformaren eskaerak.

Administrazioak ere arreta maila bera eskaintzea gustatuko litzaieke, baina hauek ez dietela inolako jaramonik egiten dio Graciak. Mugimendua ezagutzen duten gaixoei aldiz, ekimen egokia dela irizten diote eta mobilizazioetan laguntzeko prest agertu da zenbait. Hori dute kontsolagarri. ■



# LAUDIO

Apirilaren 4tik 13ra arte, Lamuza Plazan

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

**EUSKADIKO LIBURU GANBARA**

Bizi irakurriz!